# 1. Praktika

*2016/17 ikasturtea*
*Testu geografiko baten ikerketa sakona*

## *1. Praktika. Egin beharrekoa:*

*klasean azken 3 ostiraletan (ir. 30, urr. 14 eta urr. 21) laukoteka landu dituzuen aspektuak idatziz aurkeztu, modu egoki eta argian, klasean egin ditugun zuzenketak erantsiz. Hau da:*

**→Testuaren 3 ideia nagusienak 3 esalditan sintetizatu**

**→Azpimarratutako 5 terminoak egoki definitu**

**→Markatutako 2 mapa/grafikoak interpretatu (<5 lerro)**

**→ bukaeran, Saio bakoitzaren Akta edo batzar-agiri laburra jaso (intzidentzien eta talde-lanaren funtzionamenduaren berri eman)**

- Noizko? **Azaroak 3, osteguna baino lehen.**
- eGela bitartez igo (laukotearen kide bakar batek igoko du, zuek adostu)
- PDF fitxategi batean
- Gehienez 2 orrialde
- Taldekide guztien izen-abizenak dokumentuaren goi-eskuin aldean ipini
- Txukuna eta argia. Aurrerago aurkezten den errubrikaren arabera kalifikatuko da
- Notaren %10 → 1 ptu.

# a) Ideia nagusiak

- Helburua testuaren klabeak ateratzea da.
- Fenomeno edo prozesuen mamia argitara atera.
- Sintesia eskatzen zen.
  - Gehigarria edo osagarria den informazioa, benetan funtsezkoa den informaziotik bereizteko gaitasuna erakustea.
  - Adibideak eta kasuistika partikularrak alde batera eta gakoak nabarmendu.

# b) Definizioak

- Definizioa: **forma** + **edukia**
  - Terminoa argitzera zuzenduta, itzulinguruka ibili gabe.
  - Informazio argia, esanguratsua eta zuzena.

  →Helburua: hori zer den ez dakienak, zure definizioa irakurriz argi eta garbi ulertu beharko luke.

- Terminoaren esanahia nahiko zabala denean, artikuluaren testuingurura egokitu.
- Ez dago luzera finkorik; 3 bat lerro inguru.
  - >5-6 lerro: luzeegia!
- Sakonean ulertzen duzuela argi eta garbi antzeman behar da
- Terminoak euskaratu!

# c) Grafika / Mapen interpretazioa




## Zuzenketa egiteko errubrika

| | Oso ondo (4-5) | Nahikoa (2-3) | Hobetu beharra (0-1) |
|---|---|---|---|
| **Itxura, edizio formala, konposizioa** | Estilo zuzentasuna: marjinak, letraren tamaina, letren arteko espazioa, puntuazioa, paragrafoen arteko tarteak… egokiak dira eta araututa daude.<br>Dokumentuaren lehen inpresioa atsegina da. | Arau formal baten bat ez da homogeneoa testu osoan zehar.<br>Detaile batzuk zaindu beharko lirateke. | Lan akademiko batek eskatzen dituen minimo formalak ez dira betetzen.<br>Lehenengo begiradan ez da dokumentu atsegina. |
| **Ortografia eta gramatika** | Guztiz txukuna. | Akatsen bat ala beste. | Ortografia zein gramatika akats ugari (>3) |
| **Idazkera, idatziaren argitasuna eta heldutasuna** | Unibertsitate mailako diskurtso heldua da. Azalpenak argiak, sendoak eta koherenteak dira.<br>Gaiaren hizkuntza eta terminologia aproposak erabiltzen dira.<br>Lana zaindu da eta berrirakurketak egin dira testua hobetzeko. | Azalpenak egokiak dira, baina batzuetan sinpleegiak, diskurtsoari sendotasuna falta zaio.<br>Hizkuntza zientifikoa ez da guztiz menperatzen.<br>Adierazpena zaindu da, baina hobetu daiteke. | Maila akademiko urria islatzen du.<br>Hizkuntza eta terminologia ez dira aproposak.<br>Heldutasun eskaseko diskurtsoa.<br>Lana “bukatutzat eman” eta gero berrirakurketak egin ez direla argi eta garbi antzematen da. |
| **Testuaren ulermena eta sintesi ahalmena** | Artikuluaren muina agerian jartzeko trebetasuna aurkezten du.<br>Ideia nagusiak ondo identifikatu eta modu sintetikoan adierazteko gaitasuna erakusten du. | Garrantzitsua eta osagarria/bigarren mailakoa bereizteko zailtasuna.<br>Ideia nagusiak adieraztean argitasun eskasa agertzen du edo nahasita adierazten ditu.<br>Sintesi ahalmen eskasa. | Ideia nagusiak ez daki identifikatzen; anekdotak eta adibideak testuaren muinetik bereizten ez daki. |
| **Kontzeptuen definizioa** | Terminoa argitzera zuzendutako esaldiak, itzulinguruka ibili gabe; kontzeptuaren esanahia argi eta garbi adierazi du 3-5 lerrotan.<br>Hitz hori zer den ez dakienak, definizioa irakurriz argi eta garbi ulertuko du.<br>Forma eta edukiaren aldetik, definizio dotorea da.<br>Terminoa euskaratua dago. | Esanahia argia da, edonork ulertzeko modukoa, baina forma edo edukiaren aldetik hobetu beharreko aspekturen bat agertzen du. | Definizio baten eskakizunak ez ditu betetzen, ez forma ez edukien aldetik.<br>Termino hori zer den ez dakienak nekez ulertuko du kontzeptua definizio hori irakurriz.<br>Artikuluan agertzen den testuingurura ez da egokitzen. |
| **Irudi,grafiko, mapen interpretazioa** | Irudikatutako aldagaiak identifikatzen ditu.<br>Aldagaiek duten joera espaziala ulertzen du.<br>Irudikatzen duen arazoa, egoera edota joerak antzematen ditu.<br>Aldagai horrek beste batzuekin dituen loturak edo harremanak identifikatzen eta argitzen badaki.<br>Fenomenoaren/prozesuaren azalpen sakona egiteko gaitasuna erakusten du, bai bere portaera orokorra antzemateko bai eta atzean ezkutatzen diren gorabeherak argitara ateratzeko.<br>Benetako interpretazioa egin du. | Erregulartasunak antzeman, joera orokorrak sumatu egiten ditu, baina atzean dauden kausak argitara atera gabe.<br>Analisia besterik ez du egiten, interpretazioan sakondu gabe. | Bakarrik begi bistakoa dena kontatzen du: koloreak/baloreak non kokatzen dira, etab., baina joerak aztertu gabe eta kausak identifikatu gabe.<br>Deskribapen hutsa egin du: “koloreen” atzean dagoen errealitatea ez du argitara ateratzeko gaitasunik erakusten. |
| **Betekizunak praktikan zehar** | Prozesu guztian zehar eginbeharrak garaiz eta modu egokian bete dira. | Prozesuan zehar gorabeheraren bat agertu da, garaiz konpondu egin dena. | Ez diote inongo ardurarik eskaini aldez aurretik egin beharreko lanari. |

Landu duzuen testua zerrenda honen arteko bat da. Hurrengo orrialdetan kasu bakoitzean nabarmendu ditut definitu behar diren 5 terminoak eta interpretatu behar diren 2 grafika/mapak.

1. Población, vacías y llenas
2. La urbanización del mundo
3. Diversificación de las migraciones
4. El envejecimiento del mundo
5. Ricos y pobres
6. Vivir y morir

Iturria: Durand, M.F. *et al.* (2008): *Atlas de la Globalización: comprender el espacio mundial contemporáneo*. Universitat de Valencia.




2
La urbanización del mundo
La urbanización del mundo
palabras clave:
ver también:
La brusca aceleración de un fenómeno centenario
Aglomeraciones de más de 10 millones de habitantes
El archipiélago de las ciudades globales
Proporción de la población urbana por continente, 1950-2030
Evolución de las grandes aglomeraciones, 1975-2003
Población en barrios de chabolas, 2005
La fragmentación social y espacial de las grandes ciudades
Un planeta de chabolas
Evolución demográfica de algunas aglomeraciones, 1950-2015


3
Diversificación de las migraciones
Diversificación de las migraciones
palabras clave:
ver también:
Una larga historia de movilidad
Migraciones hacia los Estados Unidos, 1820-2005
Transferencias financieras de los emigrantes, 2004
Extensas regiones del mundo modeladas por las migraciones
Evolución de los efectivos de emigrantes, 1910-2000
Redes económicas vitales y frágiles
Aumento y globalización de la presión migratoria


4
El envejecimiento del mundo
palabras clave:
Desigualdades
Migraciones
Norte - Sur
Transición demográfica
ver también:
Población, vacías y llenas p. 20
Diversificación de las migraciones p. 24
Ricos y pobres p. 30
Enfermedades globales p. 34
Contrastes sorprendentes
Viejos y ricos en el Norte
Jóvenes y pobres en el Sur
La transición demográfica
Población de menos de 15 años, 2005
Problemas económicos y sociales considerables
Una carga para las generaciones futuras
Evolución del grupo de más de 65 años
Población de más de 60 años, 2005
Tasa de fecundidad, esperanza de vida y saldo migratorio, 2005


5
Ricos y pobres
palabras clave:
Ayuda
Desarrollo
Desigualdades
Norte - Sur
ver también:
Población, vacías y llenas p. 20
Diversificación de las migraciones p. 24
Vivir y morir p. 32
Educación: fracturas y competencias p. 36
Un crecimiento complejo de las desigualdades
El índice de desarrollo humano (IDH)
Índice de desarrollo humano, 2004
La toma en consideración del desarrollo humano
Riqueza y desigualdades, 2004
Hacia una redefinición de la ayuda al desarrollo
IDH en África, 2004


Vivir y morir
6
Entre carencias y obesidad
Consumo de calorías, 2002
Mortalidad de los niños de menos de 5 años en algunos países, 2004
Seguridad sanitaria, seguridad humana
Médicos en algunos países, 2004
Gastos gubernamentales en sanidad, 2003
Esperanza de vida al nacer, 2004